

Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra

Erabiltzeko Gidaliburua

LEHEN HEZKUNTZA



Aurkibidea

1. Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra: Familiarentzako informazioa.

2. Nola erabili Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra?

- Zer da...?
- Noiz erabili HPE?
- Nola erabili?

2.1. HPEren atalak ezagutzen

2.1.1. Nire Hizkuntza-biografia

- A. Nire hizkuntzen koloreak
- B. Hizkuntza eta kulturekin ditudan esperientziak
- C. Zer ikasten dut hizkuntzetan?
- D. Nola ikasten ditut hizkuntzak?
- E. Nire hizkuntzetan dakidana eta egin dezakedana

2.1.2. Nire Dosierra

2.2.3. Nire Hizkuntzen Pasaportea

3. EEMBreko maila bateratuak.

4. Europako Kontseiluaren autoebaluazio taulen egokitzapena.

5. Lehen Hezkuntzako gelan Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra abian jartzeko jardueren adibideak.

1. Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra: Familiarentzako informazioa

Zuen semeak edo alabak Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra erabiliko du Lehen Hezkuntzan zehar. HPE Europako Kontseiluak proposatutako dokumentua da. Hizkuntzen ikaskuntzarako Europako Erreferentzi Marko Bateratua abian jartzeko pentsatuta dago, hori baita Kontseiluarentzat azken urteotako interes bereziko gaia.

Bizitzan zehar, zuen semeak edo alabak Portfolioaren beste bertsio batzuk erabiliko ditu, eta horietako bakoitza bere ikasketa-mailari egokituko zaio.

Dokumentu honek hizkuntzak ikasteko orduan izandako esperientziak eta hurren hainbat kulturekiko harremanak jasoko ditu. HPEk honako informazioa biltzen du:

- familian erabiltzen diren hizkuntzak,
- haurrek inguruko hizkuntzetan dituzten ezagupenak,
- beren ikastetxean eta ikastetxetik kanpo egindako hizkuntzari lotutako ekoizpenik hoberenak,
- hizkuntza ikaskuntzan egindako aurrerapenen inguruan haurrek egiten duten balorazioa.

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Helduen Hezkuntzako bertsioen HPEren pilotajea zenbait Autonomi Erkidegotan egin zen 2002-2003 ikasturtean. Hurrengo ikasturtetik aurrera abian jarri zen esperimentera.

Nire Hizkuntzen Portfolio Europarrak oinarritzko hiru atal ditu, zuen semeak edo alabak landu ahal izango dituenak tutore edo hizkuntza irakaslearen laguntzaz baita zuen laguntzaz ere.

Nire Hizkuntzen Portfolio Europarraren hiru atalak honako hauek dira:

- Nire Hizkuntza-biografia. Hizkuntzen Portfolio Europarraren (HPE) atalik garrantzitsuena da. Zuen semeak edo alabak erabiliko du hizkuntza aurrerapenak balioesteko eta hizkuntzekin zein kulturekin izandako esperientziak idazteko; horrela iritsi baitaiteke zer eta nola ikasten duen aztertzeraz.
- Nire Dosierra. Dosier honetan zuen semeak edo alabak honakoak egin ahal izango ditu: hainbat hizkuntzarekin eta kulturekin izandako harremanen oroigarri aipagarrienak txukundu eta sailkatu.
- Nire Hizkuntzen Pasaporte. Bertan haurrak zehatz-mehatz idatziko du hizkuntz ikaskuntzaren zein momentutan dagoen; HPEren atal honetan, laburtu ahal izango ditu kulturekin izandako esperientziak, baita eskola barrukoak eta kanpokoak ere, besteei haien berri emateko.

Nire Hizkuntzen Portfolio Europarrak ez du kalifikazio buletina izan nahi. Norberarentzako dokumentu bat da; haurra da horren jabe, eta esango digu nolakoa den haurraren jakin-mina kultura eta hizkuntzen gainean eta zein aurrerapen eta ahalegin egin duen ikasteko orduan. Eguneroko antzeko bat da, ikasle autonomoa izaten lagunduko dio eta Europako hizkuntzen eta munduko pertsonen gainean gehiago jakitera bultzatuko du.

Lagun iezaiozue honakoak egiten: Portfolioa zaintzen, Dosierrean gordetzeko materialak aukeratzen eta azaltzen, baita balioesten zein aberatsa den hainbat kulturatako pertsonak ezagutzea eta haiekin harremanak izatea.

2. Nola erabili Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra?

Zer da HPE?

Hurrek hizkuntzekin eta kulturekin izandako esperientziak jasotzen dituen dokumentua da: erabiltzen dituzten hizkuntzetan eta ikasten ari direnetan egindako aurrerapenak eta gogoetak.

Portfolioa, beraz, honako hau da:

- Eskola-emankizunetako zein eskolaz kanpoko hizkuntza eta kultura esperientzien bilduma irekia.
- Dokumentua hurrarena da, baina irakasleak gorde dezake, gelan erabiltzen denean.
- Dokumentu horretan hurrak ezagutu, erabili eta ikasten dituen hizkuntza guztien berri jasoko da.



Noiz erabili HPE?

Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra hurrak etxean bete dezake, guraso edo familiakoen laguntzaz, honakoetan:

- Familian erabiltzen diren hizkuntzen edo inguruko hizkuntzen gainean gogoeta egin ondoren.
- Oporrak izan edo bidaia bat egin ondoren.
- Hainbat kultura edo hizkuntzatarako pertsonen artean egonaldia egin ondoren.
- Ikasle-trukea egin, udaleku edo jai batera joan, ospakizunen bat izan, tokiren bat bisitatu... ondoren.

Ikastetxean ere erabil daiteke heziketa-prozesuan zehar; guri dagokigunez, Lehen Hezkuntzan, hizkuntza irakaslearen edo tutorearen laguntzaz.

Ikasgelan osorik edo zatika landu daiteke:

- Ikasturte edo hiruhilekoaren hasieran, aurrebaluazio bezala, helburuak eta lanerako xedeak finkatzeko.
- Ikas-unitate baten edo batzuen amaieran, ikasleari honakoak egiten laguntzeko:
 - ✓ Egindako jardueretan erabili dituen trebetasunak bereizten.
 - ✓ Ikasteko moduz gogoeta egiten.
 - ✓ Zenbat eta zer ikasi duen neurtzen.
 - ✓ Ikasturtean zehar, irakasleak egokia deritzonean, ikasleek ikasteko orduan zer-nolako bideak erabiltzen dituzten aztertzeko eta ikasteko premia sortzeko.
 - ✓ Hiruhilekoaren edo ikasturtearen amaieran, autoebaluazioa eta aurrerapena balioesteko.

Nola landu HPE?

Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra lantzeko gomendioak aipatzen dira jarraian.

- Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra hurrei eman baino lehen, komenigarria da dokumentuaren helburua zein den azaltzea.
- Atalak betetzen hasi baino lehen komenigarria da:
 - ✓ Hurrei galdetzea bertan ezer idatzi nahiko luketen.
 - ✓ Hurrekin mintzatzea hainbat hizkuntzarekin izan dituzten esperientzia eta harremanei buruz, familian zein ikastetxean.

- ✓ Hainbat hizkuntzatan egiten dituzten aurrerapenei buruz mintzatzea.
- ✓ Gogoeta egitea gustuko gauzen inguruan (8-10 urtekoekin) eta ikasteko moduaren inguruan (10-12 urtekoekin).
- ✓ Nire Hizkuntzen Portfolio Europarraren ale bat ematea haurrari.

OHARRA: Ikasgelan erabili ahal izateko, begiratu gidaliburu honen bukaeran jardueri buruzko proposamena.

2.1. HPEaren atalak ezagutzen:

2.1.1. Nire Hizkuntza-biografia

A. Nire Hizkuntzen koloreak

Haurra sentsibilizatzeko jarduera bat da, jabetu dadin zein diren erabiltzen eta ikasten dituen hizkuntzak.

Haurrak, erabiltzen edo ikasten ari den hizkuntza bakoitzeko koloreko fitxa bat aukeratuko du, eta hizkuntza horren izena idatziko du laukitxoan. Gogoraziko zaio, aurrerantzean atal hau betetzeko orduan, kontuan izan beharko duela zer kolore eman dion hizkuntza bakoitzari.



Gelan ikasten ari diren hizkuntzetarako haur guztiek kolore berberak erabil ditzakete, ikaskideekin ados jarri ondoren.

Fitxa bat utzi da zuriz, bosgarrena, hizkuntza bat gehiago ezagutzen duten haurrentzat. Beharrezkoa izanez gero, haurrek fitxa gehiago marraztu dezakete eta kolorea eman, hizkuntzak identifikatzeko aukeratzen dituzten koloreak erabiliz.

Orrialde hauek fotokopia daitezke heziketa prozesuan zehar erabiltzeko. Horrela eginez gero, haurrei eskatuko genieke laukitxoak identifikatzeko honako ikurren bidez: puntuak, marrak, karratuak. Ikur horiek beraiek marraztu ahal izango lituzkete fitxetan hizkuntza ezberdinak identifikatzeko, betiere bi baino gehiago badira.

B. Hizkuntzekin eta kulturekin ditudan esperientziak

Ezagutu ditudan pertsonak, egindako jarduerak eta bisitaturiko lekuak.

Haurrari aukera emango zaio bere ingurua aztertu eta gogoeta egiteko. Ezagututako pertsonak gogoratu eta honakoak aztertzeko: egindako jarduerak eta hizkuntzekin eta kulturekin izandako harremanak, bai eguneroko bizitzan bai oporraldietan. Haurrak, egindako jardueri buruzko informazioa gehitu dezake: non, iraupena, noiz, edo zenbat urterekin egin zituen.


Etxean, haurrei lagundu ahal zaie pertsonak, harremanak edo bizi izandakoa gogoratzen.

Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra gelan erabiltzen denean, ikasleen esperientzien gainean eztabaida sortzeko jarduerak antola ditzake irakasleak. Horretarako familiaren laguntza izatea oso interesgarria da. Biografia tankerako istorioak ere irakur daitezke eredu gisa.

Haurrak bere inguru hurbila aztertu eta zati honetan bere iritziak idatziko ditu honako gainean:

- ✓ Etxean erabiltzen dituen hizkuntzak, ama-hizkuntza barne.
- ✓ Hainbat hizkuntza erabiltzen dituzten pertsonak (lagunak, auzokideak eta senitartekoak).
- ✓ Ikastetxean eta ikastetxetik kanpo ikasten dituen hizkuntzak.
- ✓ Zer ikasten duen dakizkien hizkuntzetan edo nola ikasten duen hizkuntza bat. Zati hau Lehen Hezkuntzako azken kurtsoetako ikasleekin landu daiteke bereziki.
- ✓ Beste hizkuntza batzuetako hitzuneekin izan dituen harremanak.
- ✓ Noiztik dabilen ikasten.
- ✓ Nola eta zertarako erabiltzen dituen ezagupenak: "marrazki bizidunak ikusten ditut ingelesez" edo "e-postak idazten dizkiet portugaleraz mintzo diren lagunei".
- ✓ Hainbat herri edo autonomi erkidegotara egindako bidaien eta trukeen esperientziak, eta horietako bakoitzak zenbat iraun duen.

C. Zer ikasten dut hizkuntzetan?



Zati hau 8-10 bitarteko haurrentzat da, gelan beste adin batzuetako ikasleekin landu badaiteke ere; orrialde honetan aukera izango dute hizkuntzetan lantzen ari diren jarduera eta testu-genero zehatzak idazteko: kantuak, errimak, hitz parrastak, aho korapiloak eta agurrak. Horien hasiera idaztera bultzatuko ditugu, gerora gogoratu ahal izateko.

Kutxa itxurako karpeta egokia da koaderno edo libreta gordetzeko: haurrek zein errima edo kantu gorde nahi dituzten aukeratu, eta hori **Nire Dossierrean** idatzita izan ondoren, hitz guztiak koaderno edo libreta batean jasoko dituzte.

D. Nola ikasten ditut hizkuntzak?

Orrialde hau 10-12 urte bitarteko ikasleei dago zuzendua. Helburua ikasleek beren ikasteko moduez gogoeta egitea da, nork bere autonomia garatu ahal izateko.

E. Nire Hizkuntzetan dakidana eta egin dezakedana

Zati horren asmoa haurrek nork bere ebaluazioa egiten ohitzea da; hau da, hizkuntza ikaskuntzan lortutako ezagupenak eta norberak egindako aurrerapenak balioesten ikastea. Haurrak ohituta daude beren lanaz besteek egiten duten balioespena jasotzen eta onartzen.

Norberaren eguneroko moduko labor bat da. Bertan, komunikazio arloko eta hizkuntza funtzio espezifikotako deskribatzaileak irakurri ondoren, zer egiteko gai diren zehaztuko dute. Gelan, tutoreak edo hizkuntza irakasleek lagunduta beteko dute ikasleek.

Ikasleak EEMBK zehazten dituen gaitasunak bereiz ditzan, komenigarria da lehenago zenbait jarduera egitea:

Entzun

Zer atzematen edo ulertzen dugun beste hizkuntza batean ari den hiztuna entzutean, zuzenean edo grabazio batean.

Irakurri

Zer ulertzen dugun iragarki eta oharrek bezalako testu laburretan, edo istorio tankerako testu luzeetan.

Hitz egin

Zer adierazteko gai garen besteen eragina kontuan eduki gabe.

Elkarrizketan aritu

Zer esan diezaikegun besteei eta nola ulertzen dugun besteek esaten digutena.

Idatzi

Zer idatz dezakegun: objektuak izendatzeko hitzez gain, eskutitz, ohar, postal eta e-postak bezalako testu laburrak.

ENTZUMENA LISTENING

GAI NAIZ HONAKOAK EGITEKO:

- norbera, familia, iragarki edo ikastetxeari buruzko, hitz egazunak eta esaldi errazak ulertu
- errima eta abarren hitz egazunak ulertu, leiru eta irudien laguntza:
- ipui niredo kontak izan behar hasten eta amaitzeko esaldiak ulertzen.
- istorio baten hitz egazunak eta esaldi errazak ulertu.
- galdera errazak ulertu nire adinarean, bizilekuan eta zalekasunen inguruan.
- galdera eta jarraitze laburak ulertu eguneroko egitza irak egiteko orduan, ikasteko jardueran, eskulaburak eta testulaburak egitekoan.
- esagutzen dituzten pertsonen eta tokien deskribapen errazak ulertu.
- nire hezi edo hitzoko hitz egazunen izenak ulertzen eta azaldu dituzten eredu berrak.
- ikastetxe baten jarduera irakurri eta nire edo beste eraz baten bidez jarraitzeko argibideak ulertu.

Kontuan izan beharko da haur bakoitzak bere inguruaren arabera, zenbait gaitasun garatuago izango dituela. Gogoeta egin ondoren, ikasleek ondorio hau atera dezakete: hizkuntzak ikasteak ez du esan nahi hizkuntza guztietan modu berean aritzeko gai izatea. Halaber, ulertu ahal izango dute, gaitasun horiek banan-banan garatu arren, elkarren artean lotuta daudela (esate baterako, irakurtzeko ezinbestekoa da ulertzea, eta elkarrizketa batean aritzeko, ahozko adierazpena eta zenbaitetan irakurmena ere erabili behar dira).

Haur bakoitzak bere ebaluazioa egin dezan, hainbat gomendio:

Haur bakoitzak gaitasun batean aurreratu eta maila lortu duela (A1, A2...) uste duenean, "Zer dakit egiten nire hizkuntzetan" zatia osatu ondoren (adibidez: "Hitz egin"), laukitxoa edo fitxa markatuko ditu, hizkuntza horretan egindako aurrerapenak balioesteko aukeratu dituen koloreak erabiliz. Hori egin eta gero, **Nire Hizkuntzen Pasaportea** hartu, eta **Europako Kontseiluaren arabera egindako aurrerapenak** ataleko orrialdera joko du. Hizkuntzari dagokion kolorean (ingelese, frantsesa...), izartxo bat jarriko du lortu duen gaitasunean. Era horretan, aurrerapenak nabaritu ahal izango ditu.

B1, B2 maila lortu dutela uste duten ikasleek, beraiek idatzitakoa alderatuko dute Europako Kontseiluaren autoebaluazio taularekin; edo gida honen bukaeran proposatzen diren egokitutako deskribatzaileekin.

2.1.2. Nire Dosierra

Gogoko lanak edo oroigarriak kutxa-karpetan gordeko ditu haurrak. Horiek gorde baino lehen, gomendagarria da zergatik aukeratu dituen esanaraztea eta **Nire Dosierra** koadernoan idaztea. Material horiek ordezkatu daitezke, ikasturte bakoitzean edo noizean behin.

Nire Dosierra: Hizkuntzen eta kulturen oroigarriak atalean haurrek gorde ditzakete hainbat hizkuntza eta kulturekin zerikusia duten objektu esanguratsuak, haiek aurkitutakoak edo oparitu dizkietenak: seiluak, txanponak, argazkiak...

Lagundu ahal zaie beste kultura bateko ohiturak, gertaerak eta jaiak norberaren kulturearekin lotzen. Horrez gain, **Dosierreko** materialak erabiliz, eskatuko zaie alderatzeko kultura horien hainbat alderdi (ohiturak, usadioak, ospakizunak, ordutegiak, otorduak...) gertukoenekin.



2.1.3. Nire Hizkuntzen Pasaporte

Lehenago adierazi bezala, **Portfolioaren** atal honen xedea informatzea da, bertan jasotzen dira haurrak landu dituen kultura eta hizkuntza edukiak, bai **Nire Hizkuntza-biografian** bai **Nire Dosierrean**; hau da, beraz, hiru dokumentuetatik bete behar duen azkena.

Pasaporte itxura eman zaio, eta hasierako bi orrialdeetan, haurrak bere datu pertsonalak idatziko ditu, izena eta zenbat hizkuntza erabiltzen duen familia giroan eta ikastetxean; argazkia jartzeko lekua ere badu. Zati honetan, haurrak **Nire Hizkuntza-biografian** idatzitako esperientziak laburbilduko ditu; izan ere, **Nire Hizkuntzen Pasaporte**a hainbat hizkuntza eta kulturekin izandako esperientzien laburpena da.



Hizkuntzekin eta kulturekin izandako esperientziak

Zati hau haurrak testuinguru formal eta informalean burututako jardueren laburpena da. **Nire Hizkuntza-biografian** sakontasun handiagoz azaldutakoak jasotzen dira orain modu laburrean: hainbat pertsona, kultura eta hizkuntzekiko harremanetan haurrek izandako bizipenak eta esperientziak.

Ziurtagiriak eta diplomak:

Zenbait ikaslek eman ahal izango dute, hizkuntza jardueretan —eskola barrukoetan zein kanpokoetan— lortu duten diploma edo ziurtagiriri berri.

Kurtso bakoitzean ikasten ditudan hizkuntzak:

Tarte bat utzi da haurrak idatz dezan zer hizkuntza ari den ikasten, eskola barruan zein kanpoan.



Europako Kontseiluaren ustez egindako aurrerapenak:

Zati honetan, haurrak hizkuntza ikaskuntzan egindako aurrerapenak balioetsiko ditu, behin **“Zer dakit egiten hizkuntzetan” Nire Hizkuntza-biografiako** autoebaluazio zatia landu ondoren. Ezagutzen dituen hizkuntzetan duen maila edo ustez lortua duena idatzi ahal izango du, familiaren edo irakaslearen laguntzaz.

Autoebaluazioak autonomia garatzen laguntzen du eta haurrek beren buruaz iritzi baikorra izaten.

Haur bakoitzak Pasaportean idazten duen baliospenak Europako Erreferentzi Marko Bateratuak (EEMB) ezarritako gaitasun mailak izan behar ditu kontuan. Lan hori errazteko, Europako Kontseiluaren autoebaluazio tauletako deskribatzaileak egokitu egin dira B1 mailaraino haurrek uler eta irakur ditzaten. Egokitutako deskribatzaile horiek autoebaluazio taularen ondoren azaltzen dira.

Haurrak koloreko arkatz horietako batekin identifikatu beharko du hizkuntza bakoitza, **Nire Biografian** bezalaxe, eta ondoren, laukitxoetan jarriko ditu izartxoak edo beste ikurren bat, entzumenean, irakurmenean, ahozko-adierazpenean, elkarrizketan eta idazmenean lortu duen gaitasuna kontuan hartuta. Era horretan ulertuko du hizkuntza bat ikastea ez dela hizkuntza horren trebetasun guztiak menderatzea, baizik eta gaitasun partzialak eskuratuz ikasiko duela.

Haurrari galderak egiteak eta haurra entzuteak berak ikasitakoa balioesten lagunduko dio.

Nire Hizkuntzen Pasaportea/My language passport

Hizkuntza: Language	Documen/Listening	A1	A2	B1	B2	C1	C2
	Irakurket/Reading						
	Ahozko adierazpen/Speaking						
	Elkarriketa/Oral interaction						
	Idazket/Writing						
Hizkuntza: Language	Documen/Listening	A1	A2	B1	B2	C1	C2
	Irakurket/Reading						
	Ahozko adierazpen/Speaking						
	Elkarriketa/Oral interaction						
	Idazket/Writing						
Hizkuntza: Language	Documen/Listening	A1	A2	B1	B2	C1	C2
	Irakurket/Reading						
	Ahozko adierazpen/Speaking						
	Elkarriketa/Oral interaction						
	Idazket/Writing						
Hizkuntza: Language	Documen/Listening	A1	A2	B1	B2	C1	C2
	Irakurket/Reading						
	Ahozko adierazpen/Speaking						
	Elkarriketa/Oral interaction						
	Idazket/Writing						

IZARTXOAK MARRAZTUKO DITU!

NIRE AURRERAPENAK

3. EEMBren MAILA BATERATUAK

Gida honen amaieran, gaitasun mailak adierazten dituzten taulak aurkituko dituzu. Taula horietan jasotzen dira Europako Kontseiluak hizkuntza ikaskuntzarako EEMB (Europako Erreferentzi Marko Bateratuak) zehazten dituen erreferentzia mailak:

A1 Hasierako maila

A2 Tarteko maila

B1 Atalase maila



B2 Maila aurreratua

C1 Eraginkortasun maila

C2 Menderatze maila

Adin hauetako haurrak lehenengo hiru mailetan egoten dira – **A1, A2, B1** mailetan, alegia –betiere ikasleen garapen eta ezaugarri pertsonalen arabera. Hala ere, Europako Kontseiluaren arabera maila guztiak mantendu dira taula horietan, bi helbururekin: haurrak hizkuntzen ikaskuntzan izandako aurrerapenak autoebaluatzeko eta beste helburu batzuk ezarri ahal izateko. Horrela, hurrek ikusi ahal izango dute hizkuntzak ikastea bizitzan zehar burutu beharreko eginkizuna dela.

Autoebaluazio-taula

		A1	A2	B1	B2	C1	C2
ULERTU	 Entzumenena	Gai naiz hitz arruntenak eta oso oinarrizko esapideak ulertzeko (norberari, familiari eta inguruari buruzkoak lasai eta argi hitz egiten badute).	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (norberari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, baita erosketan, inguru eta lanari buruzkoa ere). Funtsezkoa ulertzen dut iragarki eta mezu labur, erraz eta argietan.	Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketaldia argia eta estandarra eta gaiak ezagunak direnean, lanean, ikastetxean, aisian, etab. Ulertzen dut funtsezkoa irrati- edo telebista-saio gehienetan (gaurkotasuneko eta interes pertsonal edo profesionaleko gaiak badira), betiere, poliki eta argi hitz egiten badute.	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko; baita argudio konplexuak ulertzeko ere, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneroko gorabeherari buruzko saio gehienak. Gai naiz hizkuntza estandarrean ematen diren film gehienak ulertzeko.	Gai naiz berbaldi luzeak ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badaude ere edo erlazioak oso esplizituak ez izan arren. Telebista-saioak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.	Zailtasunik gabe ulertzen dut edonoren ahozko jarduna, aurrez aurrekoa nahiz hedabideetakoak; baita jatorrizko hiztunen abiaduran hitz egiten denean ere, baldin eta hizkerara ohitzeko denborarik badut.
	 Irakurmena	Gai naiz hitz eta izen oso arruntak ulertzeko, baita esaldi oso errazak ere; adibidez, iragarki, poster edo katalogoetan.	Gai naiz testu labur eta oso errazak irakurtzeko. Badakit informazio jakin bat idazki arruntetan bilatzen; esate baterako iragarki, gida, menu eta ordutegietan. Gutun pertsonal labur eta errazak ulertzen ditut.	Gai naiz ohiko hizkeran idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gutun pertsonaletan ulertzen dut gertaeren, sentimenduen eta desioen adierazpena.	Gai naiz gaur egungo gaiei buruzko artikulak eta txostenak irakurtzeko, egileek hainbat ikuspuntu hartzen badituzte ere. Ulertzen dut gaur eguneko hitz-lauzko literatura.	Gai naiz gertakizunetan oinarritutako testuak edo literatura testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko. Artikulu espezializatuak eta jarraibide tekniko luzeak irakurri ahal ditut, nire arlokoak ez badira ere.	Gai naiz edozein testu mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egitura edo hizkuntza aldetik zailak direnak ere; adibidez, eskuliburuak, artikulak espezializatuak edo literatura lanak.

HITZ EGIN	 Elkarrizketa	<p>Gai naiz elkarrizketetan modu errazean aritzeko solaskidearen laguntzaz; betiere solaskidea prest badago esandakoa errepikatu edo bestela esateko, astiro jardun eta adierazi nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz galdera errazak egin eta erantzuteko, premia dudanean eta oso ezagunak diren kontuetan.</p>	<p>Gai naiz jarduera eta arlo ezagunetan komunikatzeko, informazio trukea zuzena eta erraza denean. Nahiz eta batzuetan elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertu ez, jende artean informazio truke laburrak egiteko gai naiz.</p>	<p>Gai naiz hizkuntza hori mintzatzen den herrialdera joanez gero, gerta litezkeen egoera gehientsuenetan moldatzeko. Aldez aurretik prestatu gabe ere, elkarrizketetan parte hartzen dut, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak...).</p>	<p>Gai naiz jatorrizko hitzuneekin mintzatzeko, hitz-jario eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz eztabaidetan parte hartzeko eta nire iritzia azaldu eta haiei eusteko egoera ezagunetan.</p>	<p>Gai naiz natural eta jariatutasunez hitz egiteko, esapideen bila gehiegi luzatu gabe. Badakit hizkuntza, malgu eta eraginkor erabiltzen giza harremanetan edo lan esparruan. Badakit neure ideia eta iritzia zehatz adierazten eta neure adierazpenak beste solaskideenekin trebeziaz lotzen.</p>	<p>Gai naiz, eragozpenik gabe, edozein elkarrizketatan edo eztabaidatan parte hartzeko. Ondo erabiltzen ditut esamoldeak, esaerak eta lagunarteko hizkera, ideiak hitz-jario eta ñabardura zorrotzez adierazten ditut. Arazoren bat badut, gai naiz atzera egiteko eta inor konturatu gabe aurre egiteko.</p>
	 Ahozko adierazpena	<p>Gai naiz esaldi eta esapide errazak erabiliz, nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.</p>	<p>Gai naiz esaldi eta esapide sorta bat erabiliz, modu errazean deskribatzeko: nire familia edo beste edonor, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo aurreko lana.</p>	<p>Gai naiz esaldiak era errazean josiz, esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak adierazteko. Gai naiz nire iritzia edo egitasmoak arrazoitzeko eta laburki azaltzeko. Badakit istorioak kontatzen, liburuen eta filmen argumentuak azaltzen eta horiek nigan eragindakoa adierazten.</p>	<p>Badakit zehatz eta argi hitz egiten ezagutzen ditudan gai askori buruz. Nire ikuspuntua eman dezaket, hainbat aukeraren abantailak eta desabantailak azaltzeko.</p>	<p>Badakit gai konplexuen inguruko deskribapen argi eta zehatzak egiten —gairekin lotuta dauden beste gai batzuk ere tartekatuz—. Zenbait ideia garatu eta ondorio egokiz biribiltzen ditut.</p>	<p>Gai naiz deskribapen edo argudioak argi eta erraz emateko, testuinguruari egokitutako estiloan. Badakit ideiak era logikoan eta antolatuan aurkezten, eta garrantzitsuena iruditzen zaidana nabarmentzen eta gogorarazten.</p>
IDATZI	 Idazmena	<p>Gai naiz postal laburrak idazteko, esaterako oporretakoak. Nire datu pertsonalak galdetegi batean idatz ditzaket; adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko sarrera orrian.</p>	<p>Gai naiz ohar eta mezu labur eta errazak idazteko, nire oinarritzko premiak asetzeko. Gai naiz gutun pertsonal errazak idazteko, esate baterako, eskerrak ematekoak.</p>	<p>Gai naiz testu erraz eta ongi lotuak idazteko ezagunak edo gogokoak ditudan gaien gainean. Gutun pertsonaletan nire esperientziak eta irudipenak adierazten ditut.</p>	<p>Badakit testu argiak idazten, xehetasun eta guzti, nire gogoko hainbat gairen inguruan. Gai naiz idazlanetan eta txostenetan informazio jakinak adierazteko edota iritzi baten aldeko eta kontrako arrazoiak emateko. Gutunetan zenbait gertaerari eta esperientziari ematen diden garrantzia azpimarratu ahal dut.</p>	<p>Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuez aritzen, gutun, idazlan edo txostenetan; eta garrantzikoaren iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratzen, eta testuari dagokion idazkera hautatzen.</p>	<p>Gai naiz testu egokiak argi eta erraz idazteko. Egitura logiko eta eraginkorra duten gutun, txosten eta artikulu konplexuak idazten ditut, irakurleak puntu nagusiak ulertzeko eta gogoan hartzeko moduan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura lanak idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.</p>

4. Europako Kontseiluaren autoebaluazio taulen egokitzapena

Lehen Hezkuntza.

Irakasleen lana eta ikasleen autoebaluazioa errazteko, HPE egin duen taldeak proposatu du Europako Kontseiluaren autoebaluazio taulako deskribatzaileak egokitzea:

ENTZUMENA	IRAKURMENA	ELKARRIZKETA	AHOZKO ADIERAZPENA	IDAZMENA
A1. Gai naiz hitz arruntak eta oinarritzko esapideak ulertzeko; esaterako adina, izena, nire senitarteko eta lagunen gustuak; astiro hitz egiten badidate edo irudiak erakusten badizkidate.	A1. Gai naiz inguruko izen eta hitzak ulertzeko etxean, ikastetxean, parkean; baita errotulu, kartel eta katalogoetan agertzen diren esaldi errazak.	A1. Gai naiz elkarrizketatan modu errazean aritzeko senitartekoekin, lagunekin eta irakaslearekin; hitzak eta keinuak erabiliz; bestek errepikatu eta esan nahi dudana esaten lagundu behar badidate ere.	A1. Gai naiz esapide eta esaldi errazak erabiliz, nire bizilekua, jende ezaguna, zaletasunak eta gogoko gauzak deskribatzeko.	A1. Gai naiz postal laburrak idazteko; esate baterako, zorionak ematekoak eta oporretakoak. nire datu pertsonalak galdetegi batean idazten ditut.
A2. Gai naiz esapideak ulertzeko egoera hauetan: etxean senitartekoei buruz hitz egiten didatenean; lagunekin jolasean; ikastetxean irakasleak hitz egiten didanean, eta auzoan erosketak egitean. Gai naiz hainbat arau ulertzeko, joku, kirol eta aisialdiko jardueretan. Ulertzen ditut mezu labur eta errazak, instrukzioak eta gomendioak direnean.	A2. Gai naiz testu oso labur eta errazak ulertzeko; badakit testu errazetan informazioa eta datuak aurkitzen (iragarki, txartel, menu eta gutun pertsonaletan edo postaletan).	A2. Gai naiz etxeko eta ikastetxeko gai arruntan inguruan hitz egiteko. Gai naiz jolas errazetan aritzeko, esaten didatena ulertzea eta elkarrizketari eustea kostatzen zaidan arren.	A2. Gai naiz esaldi eta esapide errazak erabiliz deskribatzeko, jende ezaguna, ikastetxean egiten ditudan jarduerak, nire zaletasun eta oporraldiak. Jolasteko esamoldeak ezagutzen ditut, esate baterako, txanda eskatzekoak.	A2. Gai naiz ohar eta mezu labur eta errazak idazteko, gaiak ezagunak direnean. Gutun pertsonal sinpleak idazten ditut, esate baterako, gonbidapenak.
B1. Gai naiz mezuak ulertzeko nire intereseko gaiak direnean, irratitelebistako programetan. Gai naiz etxean eta ikastetxean kontatzen dizkidaten istorioen argumentua ulertzeko; baita marrazki bizardun eta filmetan ere.	B1. Gai naiz ohiko hizkeran idatziriko testuak ulertzeko, gertakizunak deskribatzen badituzte. Gai naiz pertsonaien sentimenduak atzemateko gutun eta ipuinetan.	B1. Gai naiz elkarrizketa arruntetan parte hartzeko nire familiari, zaletasunei, ikastetxeari eta bidaiei buruzkoak direnean.	B1. Gai naiz besteen esperientziak edo niri gertatutakoak deskribatzeko: zer gustatzen zaidan, zer egin nahi dudana eta nola sentitzen naizen. Gai naiz nire iritzia eta planak azaltzeko eta film, istorio edo liburu bat kontatzeko, nire iritzia azalduz.	B1. Gai naiz testu errazak idazteko, nire intereseko gaiak direnean. Gutun pertsonalak idazten ditut nire esperientziak eta iritzia adieraziz. Gai naiz galdera luzei idatziz erantzuteko.
B2. Gai naiz ulertzeko irakaslearen, senitarteko eta lagunen azalpen luze eta aski korapilatsuak, gaia ezaguna denean; telebistako ia gai guztiak ulertzen ditut, ezagunak direnean, baita filmak ere, hizkera moduak oso ezberdinak ez direnean.	B2. Gai naiz gaur eguneko gai eta arazoak buruzko artikulak irakurtzeko, hainbat ikuspuntu agertzen badira ere; gai naiz liburuak irakurtzeko istorioak laburrak direnean, baita gazte literaturako ipuinak ere.	B2. Gai naiz jarioetasunez eta bat-batean jatorrizko hiztunekin aritzeko; gai ezagunei buruzko elkarrizketetan parte hartzen dut, nire iritzia azalduz.	B2. Gai naiz deskribapen argi eta zehatzak egiteko gai askoren inguruan; badakit ideia edo iritziren bat azaltzen.	B2. Badakit testu argiak idazten, xehetasun eta guzti, nire intereseko gai askoren inguruan; idazlan edo txosten bat idatzi ahal dut informazioa eta iritzia adieraziz. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerak eta esperientzia zehatzak kontatuz.

5. Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra ikasgelan abian jartzeko jardueren adibideak. Lehen Hezkuntza

A. Hizkuntzekiko sentsibilizazio jarduerak.


Helburua haurrak sentsibilizatzea da, hizkuntza asko eta komunikatzeko modu asko daudela ikus dezaten. Hori lortzeko, esan haurrari biltzeko hainbat hizkuntzatan idatzitako gauzak: elikagaien kutxa zatiak, jostailu eta bestelako produktuetako mezuak, liburuxkak, postalak, bidaiak txartelak eta haurrak etxean aurkitutako objektu askotako testuak, kantu eta elkarriketen ikus-entzunezko grabazioak. Objektu guztiak kutxa edo apaletan jarriko dira sailkatuta, haurrak ezagutzen dituen hizkuntzen arabera. Haurrei eskatuko diegu objektu bat hartu eta ikaskideei esateko zein hizkuntzatan dagoen idatzita; besteei ados dauden ala ez galdetuko diegu. Zergatik iruditzen zaigu frantsesez, euskaraz, galegoz, katalanez, etab. dagoela idatzita? Antzera landuko ditugu ahozko materialak.

Aldaera. Bi gela edo bi talderen artean lehiaketa bat antolatuko dugu: ahalik eta hizkuntza gehienetan idatzitako materialak lortu behar dituzte.

B. HPEa erabili baino lehenagoko jarduerak

Irakasleek jarduera bat edo beste aukeratu ahal izateko taldearen ezaugarriak (ama- hizkuntzak, jatorria...) eta haur bakoitzaren garapen maila izan beharko dituzte kontuan, eta lanak zailtasunaren eta gaitasunaren arabera proposatu.

Adin hauetako ikasleek badakite irakurtzen euren ama-hizkuntzan, gutxi-asko. Sarah Philips-ek (1) eskaintzen digu aurrezagupenak antzemateko jarduera erraz bat: ikasle batek ezin badu ondoko hiru irudietatik zein den desberdina erabaki...



... litekeena da ikasle horrek arazoak izatea **p, b, eta d** hizkiak bereizteko hizkuntza guztietan. Horrelako jarduerak oso interesgarriak eta argigarriak dira baldin eta ikasleek HPEarekin batera burutzen badituzte.

(1) Philips Sarah: *Aula de inglés activa*. Colección Biblioteca de recursos para Primaria. Ed. Oxford University Press. 1996 (6. orr.)

- **Nire inguruko hizkuntzak.** Haurrak inguruan dituzten hizkuntzak zeintzuk diren ohar daitezzen, jarduera egokia litzateke ikasleei aurkeztea –edota eurek gelara eramatea– adibide erraz batzuk, ezagutzen dituzten beste hizkuntzetakoak (jostailu, pasteltxo edo objektu ezagunen izenak, eurentzat esanahi berezia dutenak, logotipoen tipografia errespetatuz, esate baterako, Playstation, Smarties...).
- **Behatu.** Inguru hurbilari begiratzeko eskatuko zaie hurrei –etxean telebista ikusten ari direnean, edo gurasoekin erosketak egitera joaten direnean–, kontura daitezzen zein diren beste hizkuntzetan agertzen diren hitzak. Hitz horien adibideak edo idatziak osorik jaso ditzakete (gaileren bildukiak, elikagaien kutxak, publizitatea, postalak...). Kopiatu edo moztu ahal dituzte, besteei erakutsi aurkitu duten guztia eta irakasleari eskatu irakurtzeko, “zer soinu duen ” entzuteko. *Ariketa hau oso interesgarria izaten da gelan baldin etxean latinetik ez datorren hizkuntzaren bat erabiltzen duen haurrik badago (txinatarrak, arabiarrek, eslaviarrak...).*
- **Nola hitz egiten duten.** Hurrei eskatuko diegu grabazioei arretaz erreparatzeko. Horietan, hainbat pertsonaia ezagun agertuko dira (abeslariak, aktoreak, futbolariak edo telebistako aurkezleak) irakurtzen edo hitz egiten haurraren ama-hizkuntzan, baina beste doinu batekin. Eskatu ahal diegu adierazteko nongoak diren beren ustez eta saia daitezela azaltzen zergatik ahoskatzen duten horrela pertsona horiek.

C. Edozein mailatan egin daitezkeen jarduerak. (2)

Zenbait jardueraren planifikazioa egin daiteke HPE Lehen Hezkuntzako gelan erabiltzeko. Horietako zenbait ikasprozesuko kurtso guztietan dira erabilgarri. Ideia batzuk proposatuko ditugu dokumentuak –hizkuntza aurrerapenez gain– haurren kulturenganako harremanak ere jaso ditzan; eta, aldi berean, beste kultura eta bizitzeko moduekiko jakinmina bultzatuz:

- **Portfolioaren txokoa.** Gelan bertan hizkuntzen eta kulturen apal bat sortu. Gelan dauden hizkuntzekin zerikusia duten materialak bilatu. Txoko edo apal horretan ikasleen HPEak gordeko dira ikasturtean zehar; horretarako kutxa handi bat edo apal bat erabiliko da Gelako Dossier gisa, gelara ekarri nahi dituzten objektuak edo materialak gordetzeko, beraien Portfolioen Dossierrean lekurik ez duten ikasleentzat.
- **Jatorria.** Ikasgelan dauden hizkuntzekin eta kulturekin zerikusia duten materialak bildu: errezetak, kantuak, argazkiak, aldizkariak, sarrerak, bidai txartelak, etab. Haurrek ikasgelara objekturen bat ekartzen dutenean, ikaskideei azaldu ahal izango diete nongoa den eta zergatik nahi dieten erakutsi. Ondoren, HPEaren txokoan gordeko da, gainontzeko ikaskideek aukera izan dezaten behatzeko eta erabiltzeko.

(2) Ana Belén Gómezek proposaturiko jarduerak

D. HPEaren egitura ezagutu eta dituen atalak lantzeko jarduerak.

- **Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra deskubritzen**

Portfolioa ikasleen dokumentua da eta beraientzat egina dago. Ikasleek aurretiaz ikus dezaten zertarako erabiliko duten, kutxa-karpetako “Hau da zure Portfolioa” ataleko taula irakurtzeko eskatuko diegu.

Bertan, eurei buruzko gauzak kontatuko dituztela esango diegu, baita ezagutzen dituzten hizkuntza eta kulturen gainekoak ere. Gero, **Portfolioa** osatzen duten koadernoak bilatzeko eskatuko diegu, bakarka edo binaka, hurrenkera honetan: **Nire Hizkuntza-biografia, Nire Dosiera, Nire Pasaportea**. Biografia, dossier eta pasaporte hitzen esanahiaren gainean duten iritzia binaka emateko eskatu diegu. 8-10 urte bitarteko ikasleei irudiak behatzeko eskatuko diegu: Dosiera, biografia, kutxa, etabar.

Ikasleei gogoraraziko diegu beraiek osatu behar duten dokumentua dela.

- **Nire Portfolioan bilatzen.**

Portfolioak dituen atalekin ohitzeko eta dokumentuarekiko jakin-mina sorrarazteko, marrazkiak eta esaldiak bilatuko dituzte.

Haurrek, bakarka, **Portfolioa** behatuko dute pare bat minutuz. Deigarri egiten zaiena aipatuko dute. Irakasleak zer gertatu zaien deigarriena galdetuko die haurrei, eta haiek egindako oharrak baliatuko ditu **Portfolioaren** zati bakoitzaren funtzioak aipatzeko.

- 8-10 urte bitartekoei arreta irudietan jartzeko eskatuko diegu.
- 10-12 urte bitartekoei, berriz, arreta esaldi eta irudietan jartzeko eskatuko diegu.

Talde handian elkarturik, adibideak bilatuko ditugu zati bakoitzak zertarako balio duen argitzeko. Arbelean idatziko ditugu hiru zutabetan.

- **Nire hizkuntzen koloreak.**

Zati honetan bizirik dauden hainbat hizkuntzaren berri emango da; hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak azpimarratu eta zein kolore erabili horietako bakoitza bereizteko erabaki.

Haurrei eskatuko diegu ikasgelara honako hauek ekartzeko: hainbat hizkuntzatako kantuek, bideoak, testu idatziak dituzten publizitate iragarkiak, bildukiak eta hainbat hizkuntzatan idatziriko liburuxka, aldizkari, CDak... ea.

Ikasgelakoek erabiltzen dituzten hizkuntzetako bakoitzari kolore bat emango diegu. Ikasleek lau edo bost kutxa ekarriko dituzte eta erabakitako kolorez bildu. Kutxa horietan haurren materialak gordeko ditugu.

- **Ados jarriko gara.**

Denon artean adostuko dugu ikasgelan erabiltzen den hizkuntza bakoitzari zein kolore eman. Horretarako, oinarriko koloreetako kartoi meheak erabiliko ditugu.

Koloreak adostu ondoren, **Nire Hizkuntza-biografiak** laukietan idatziko dugu zein kolore, zein hizkuntza.

Kartoi meheekin egindako tirekin hizkuntza bakoitzari kolore bat eman eta horman eskegi, guztien begi bistan, kolore bakoitzari dagokion hizkuntzan zenbait jarduera egiteko.

OHARRA: Komeni da **Portfolioan** inplikaturik dauden irakasleak ados jartzea hizkuntzen koloreak berberak izan daitezen ikastetxean.

- **Jaiak eta ohiturak. Erakusketa.**

Ohiturak, gertakariak eta ospakizunak euren kulturekin lotzeko, ipuinak, kaseteak, postalak, jantzi tipikoak edo apaingarriak ekar ditzakete. Besteei eskatuko diegu asmatzeko noiz erabiltzen diren: urtebetetzeetan, janzkera bereziekin loturiko ospakizunetan... Horren ondoren erakusketa bat egingo dugu ikasgelan edo ikastetxean.

- **Nire bidaiak. ...joaten naiz / Behin joan nintzen...**

Haurrei eskatuko diegu **Nire Biografian** idazteko zer gogoratzen duten oporretan egindako bidaiak eta bisitaldietatik (lekuak, pertsonak...). Horretan lagundu ahal diegu ikastetxetik antolatu izan diren bisitak gogorarazten. Azken oporraldietan bisitatu dituzten tokietako oroigarriak bilatzeko eta jasotzeko eskatuko diegu. Oroigarri horiek aukera emango digute berba egiteko leku horietako pertsonen hizkuntzaren eta bizitzeko ohituren gainean: dendak, azokak, garraiobideak (autobusak, trenak...), otorduak eta janzkerak.

Hizkuntzekiko sentsibilizazioa sustatzeko hasierako test proposamena.

Gogoko duzu hizkuntzak ikastea? Erantzun galdera hauek eta jakingo duzu.

- 1.- Margotu izartxo bat ezagutzen duzun eta ikasten ari zaren hizkuntza bakoitzeko; hizkuntzak bereizteko kolore desberdinak erabili.
- 2.- Idatzi izartxoaren ondoan hizkuntzaren izena (Esate baterako: izartxo berdea=Euskara, izartxo laranja=English)

Koloreko izartxoak marrazteko eta hizkuntzen izenak jartzeko lekua.

- 3.- Irakurri arretaz galdera bakoitza.
- 4.- Zure erantzuna BAI bada, marraztu hizkuntza horretarako aukeratu duzun koloreko izartxo. Zure erantzuna EZ bada, ez marraztu ezer.

GALDERAK	IZARTXOAK
Ikastetxean hainbat hizkuntza ari zara ikasten. Besteren bat erabiltzen duzu guraso, senitarteko edo lagunekin?	
Zurea ez den hizkuntza batean mintzo den haurren bat ezagutzen duzunean, saiatzen zara harekin hitz egiten?	
Ikasgelan erabiltzen dituzu irakaslearekin eta ikaskideekin ikasten ari zaren hizkuntzak?	
Arretaz entzuten diezu zurea ez den hizkuntza batean hitz egiten dizutenei, zer esaten duten ulertu ahal izateko?	
Bidaiaren batean kartelen bat ikusten baduzu, zure hizkuntza ez den beste batean idatzita, saiatzen zara irakurtzen?	
Gogoko duzu zure hizkuntza erabiltzen ez dutenei entzutea, zer esaten duten ulertzen ez baduzu ere?	
Zure hizkuntza erabiltzen ez duen norbaitekin zaudenean, keinuak edo ezagutzen duzun hitzen bat erabiltzen duzu besteak zu ulertzeko?	
Ikusten duzu marrazki bizidunak, telebista, bideo edo filmik zurea ez den beste hizkuntza batean?	

Atera kontuak: Kolore bakoitzeko zenbat izartxo marraztu duzu? Idatzi hemen zenbat diren guztira:

Kolore bakoitzeko zenbat izartxo diren idazteko lekua.

Eta orain, hona hemen zure emaitzak!

- **6 izartxo baino gehiago duzu:**

Bikain! Oso gogoko duzu hizkuntzak entzutea, erabiltzea, ezagutzea eta ikastea



- **4-5- edo 6 izartxo baduzu:**

Nahiko ondo. Hizkuntzak ikasten ari zara eta horretan jarraitu nahiko zenuke.

- **0-1-2 edo 3 izartxo baduzu:**

Saiatzen bazara, harrituta geratuko zara: lagun asko egin ditzakezu eta hizkuntzak ikasteko gogoia izango duzu. Bai horixe!

Nire Hizkuntzen Portfolio Europarra lan talde batek egin du. EMEBaren Europar Egitasmoen Zuzendaritza ordezkaritza Orokorrak sortutako HPEaren Batzordearen barruan.

LAN-TALDEA:

Azucena Corredera (koordinazioa)

Elisa Vázquez

Eva Martínez

Nire Hizkuntzen Portfolio Europarraren esperimentazioa 2002-2003 ikasturtean garatu da hiru Autonomi Erkidegotako bederatzi ikastetxetan, eta Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko 340 ikaslek parte hartu dute.

PARTE HARTU DUTEN IKASTETXEAK:

C.P. La Guindalera, C.P. San Juan Bautista,
British Council School, C.P. Luis Cernuda y
C.C. Notre Dame de la Sagesse,
Madrilgo Autonomi Erkidegokoa;
CRA de Tremor de Arriba (Leon), C.P. Almanzor (Avila),
Gaztela-Leongo Autonomi Erkidegokoa,
eta CPI "Cruz do Sar" (Bergondo) A Coruña,
Galiziako Autonomi Erkidegokoa.

PARTE HARTU DUTEN IRAKASLEAK:

**Montserrat Blázquez, Mónica Barrero,
Carmen Monroy, Francisco Rodilla, Rafael
Ribas, Nuria García, Fernando Marques,
Inmaculada Corredera, M^a José Serrano,
Eva Martínez, Jesús Yagüe, M^a Antonia López,
Ana Belén Gómez, Miguel Ángel Robledo,
Yolanda Rodríguez, Ana Belén Gutiérrez,
Ana Ayala, Irene Bermejo, M^a Dolores Barreiro,
Josefina Babío eta Elisa Vázquez.**

LAGUNDU DUTE:

Margarita Cabañas, Isabel Alabau,
Mar González, José Luis Pérez Iriarte,
Esmeralda Alonso eta HEParen Lan-Batzordea.